



Kultura

Carreras Mugica izango da Euskal Herriko galeria bakarra Arcon

Gaurtik igandera bitarte egingo da arte garaikidearen azoka, Madrilen. 202 galeria bilduko dira



Itziar Ugarte Irizar

Informazio osagarria

Aurtengo herrialde gonbidatua: Peru



Nazioarteko 206 galeria izango dira aurtengo Arcon. Irudian, Pelaires galeriaren erakustokia, muntatze

MOYA / EFE

Gehien irakurriak

1 Pilota federazioak zigorra kendu dio Bixintxo Bilbaori
HODEI IRURETAGOiena

2 Utzi bakean Orixe
NEKANE ARSUAGA, IZASKUN ORMAETXEA, ELI GABARAIN

3 Erditzea, bortxa bihurtuta
MAITE ASENSIO LOZANO

4 CAFen enplegua ez doa eskaerak bezain azkar
XABIER MARTIN



[_ \(https://twitter.com/share\)](https://twitter.com/share)

0

[_ \(https://www.berria.eus/paperekoa/1873/02-](https://www.berria.eus/paperekoa/1873/02-02-27/carreras_mugica_izango_da_euskal_herriko_galeriak)

[02-](https://www.berria.eus/paperekoa/1873/02-02-27/carreras_mugica_izango_da_euskal_herriko_galeriak)

[27/carreras_mugica_izango_da_euskal_herriko_galeriak](https://www.berria.eus/paperekoa/1873/02-02-27/carreras_mugica_izango_da_euskal_herriko_galeriak)



[_ \(https://www.berria.eus/berrialaguna/login\)](https://www.berria.eus/berrialaguna/login)



1 Pilota federazioak zigorra kendu dio

Bixintxo Bilbaori

(https://www.berria.eus/berrialaguna/login)

02-27/carreras_mugica_izango_da_euskal_herriko_galeriak

HO DELIRURETAGOIFENA
ORMAETXEA, ELI GABARAIN
(HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILE/)

2 Utzi bakean Orixe

(https://www.berria.eus/berrialaguna/login)

02-

27/utzi_bakean_orixe

NEKANE ARSUAGA, IZASKUN
ORMAETXEA, ELI GABARAIN
(HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILE/)

3 Urkulluk dio

Rajoyk ez ziola

bermerik eman

155.a eragozteko

(https://www.berria.eus/berrialaguna/login)

4 Erditzea, bortxa

bihurtuta

(https://www.berria.eus/berrialaguna/login)

02-

27/erditzea_bortxa_bihurtuta

MAITE ASENSIO LOZANO
(HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILE/)

5 CAFen enplegua ez

doa eskaerak

bezain azkar

(https://www.berria.eus/berrialaguna/login)

02-

28/cafen_enplegua_ez_doa_eskaerak

XABIER MARTIN
(HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILE/)

Erakusleiho bat. Hori izan ohi da Arco Arte Garaikidearen Nazioarteko Azoka: artearen eta arte sistemaren erakusleiho handi bat. Gaur eguerdian abiatuko du 38. aldia, eta, igandera bitartean, bost egunez, erakusleihoaz gain, artista, galerista, bildumagile, zale eta gehiagoren elkargune bihurtuko da. 30 herrialdetatik baino gehiagotik heldutako 203 galeriak jarriko dute euren erakustokia, eta batean baino gehiagotan izango dira Euskal Herriko artisten lanak ikusgai. Galerien artean, ordea, euskal ordezkari bakarra izango da: Bilboko Carreras Mugica.

Azken ukituekin lanean zen atzo Ignacio Mujika galeriako arduradunetako bat BERRIARI azalpenak ematean. «Urtero, gure artisten obra berrienen aurkezpen bat egiten dugu; egun zertan ari diren erakutsi». Horrekin abiatu, eta urtero foku ezberdin bat jartzen ere saiatzen dira. Aurten, Peruren urtea izanda, Armando Andrade Tudela artista perutarraren lanari egin diote lekua erakustokian, eta lantaldea pozik da horrekin. «Duela hiru urte erakutsi genuen aurrenekoz haren lana, eta harreman oso ona dugu ordutik». Tudelarekin batera, beste bi izen ere nabarmendu ditu Mujikak: Sergio Prego eta Itziar Okariz. Biak Veneziako Bienalean izango dira, eta, aurretik ere euren lanak erakutsi izan dituzten arren, aurten horiek «ikusarazteko» ahalegina egin nahi du galeriak.

Eurenean «etxeko» bihurtu diren euskal artisten lanak ere ez dira faltako: Juan Perez Agirregoikoa, Txomin Badiola, Pello Irazu, Erlea Maneroz Zabala,



Xabi Salaberria, Asier Mendizabal... Denera, 30 obra ingururekin osatu dute erakustokia, zeinetan eskulturak pisu nabarmena izango duen.

«Hainbeste galeriaren artean norberarena bereizteko lana egin behar da, eta, gu eskulturatik etorrita, hor egiten dugu apustua». Euskal Herriko artistez aritu arren, horiek «nazioarteko markoan» jarri behar direla nabarmendu du Mujikak. «Euskal artistak dira, baina, atzerriko azoka eta galerietan presente daudenez, nazioartekoak ere badira».

Azoka handia da Arcokoa, eta prezioen artean ere izaten da aldeia. Mujikaren hitzetan, «denetarik» izango da, bai oro har, eta bai eurenean. Lanik garestiena 700.000 euroan izango dute beraiek: Richard Serraren *Federal plaza 1* marrazkia. Serrak izen bereko New Yorkeko plazan jarritako eskulturatik eratorritako marrazki bat da. Hiriko alkatea aldatu zenean, hura kendu nahi izan zuten, jendearen joan-etorria oztopatzen zuelakoan. Auzia epaitegira heldu zen, eta Serrak galdu egin zuen. Halere, Mujikak azpimarratu duenez, haren ondotik ireki zen eztabaidari esker, artistek beren obrekiko eskubideak irabazi zituzten. «Horrek ekarri zuen egungo egoera, non artista baten lana saldu egiten bada ere, sortze baldintzek errespetatuak izan behar duten». Beste muturrean, Raul Dominguez artistaren lana izango da merkeena Carreras Mujicasen, 200 euro inguruan.

Obrez gain, jarduera saldoa

Beste arte azoka batzuen aldean, Mujikak dio Arco sentitzen dutela «gertukoena»: bildumagileekin bai, baina artistekin elkartzeko parada izaten baita eurentzat. Ibon Aranberri, Txomin Badiola, June Crespo eta Pello Irazu galeriakoei obrak jartzen laguntzen izan ziren, esaterako, atzo.

Duela bospasei urte zazpiraino ere iristen zen Euskal Herritik Arcora joaten ziren galerien kopurua. Baina azken urteetan Carreras Mugica izan da bakarra. «Pena». Hori sentitzen du

Mujikak. «Azkenean, galeristok nahi duguna da galeria gehiago egotea, denon artean merkatu bat garatzeko, eta arte garaikidearen mundua egonkortzeko».

Galerien erakustokiek hartuko dute Ifema guneko azalera gehiena, baina askotariko jarduerak osatuko dute azokako programa; tailer, topaketa eta hitzaldiekin, batik bat. Horien artean, Bilboko Consonni ekoizpen etxeak Maider Lopez artistaren *Marcapaginas* proiektua aurkeztuko du gaur, eta harekin ariko da Ivan de la Nuez idazle eta kritikaria.

Irakurle agurgarria:

Honaino iritsi zarenez, eskaera bat egin nahi dizugu: irakurtzen ari zaren edukia eta egunkaria babestea, konpromiso ekonomikoa hartuz. Publizitatea eta erakundeen diru-laguntzak ez dira nahikoa BERRIaren etorkizuna bermatzeko. Sarean eskaintzen dizugun edukia irakurtzen duzuen milaka irakurleek proiektuari ekarpena eginda, urrutira iritsiko ginateke.

Kazetaritza libre, ireki eta independentea egin nahi dugu euskaldunontzat. Euskaraz informatzea delako gure eginkizuna, eta zure eskubidea. Lagun gaitzazu bide horretan. Idatzi gurekin etorkizuna. Geroa zugan.

Martxelo Otamendi

BERRIAko zuzendaria

[us/berrialaguna/?bisteko_oharra&utm_campaign=Berrialagun_kaptazioa](https://www.berria.com/us/berrialaguna/?bisteko_oharra&utm_campaign=Berrialagun_kaptazioa)